

ERABAKIA, 2018KO URTARRILAREN 22KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAKO SGIKERREKO TEKNIKARIA LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA EGINKIZUNEN ESLEITZEAN BETETZEKO 2017KO ABENDUAREN 11KO DEIALDIA EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2017ko abenduaren 11ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2018ko urtarrilaren 22ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen. Zerrenda horretan ez zegoen onartutako gurakorik.

Aurrekoa ikusita, Gerentziak, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratudunen Plangintza Batzordearen 2013ko uztailaren 4ko Akordioa, 2013ko uztailaren 18ko Gobernu Kontseiluaren bileran berretsia, eta indarrean dagoen Lan Kontratuko Pertsonal Laboralaren Hitzarmenean ezarritakoarekin bat, zerbitzuaren premiak aintzat hartuta, eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian) eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau.

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Eranskinean zehazten den lanpostu eginkizunen esleipenaren prozedura amaitutzat jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

Bigarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAari . Har beza kontuan AZPren atalak.

Laugarrena.- Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau jakinarazten den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2018ko urtarrilaren 22an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

I. ERANSKINA

2017ko abenduaren 11ko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia

Lanpostua: SGIkerreko teknikaria

Erref: L 355

Zenbatgarrena: 3

Lanaldia: Arautua

Taldea: I

Categoría profesional: Ikerketako Zerbitzu Nagusietako goi mailako teknikaria

Espezialitatea: Material eta gainazalen mikroskopia

Maila: 23

HE: 3

Langunea: IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

Campus: GIPIZKOA

BE: Zientziaren arloko titulazioen batean lizentziatua, ingeniari kimikoa edo materialen ingeniaria. Doktore-gradua edo 2 urteko esperientzia ondoko gaietan: MET transmisio-mikroskopia elektronikoa (eremu argia/eremu ilun: erabiltzea, X izpien oinarrizko mikroanalisi (EDX), kriomikroskopia, elektroien difrakzioaren bidezko analisi kristalografikoa laginak prestatzea ultramikrotomoan ebakita (giro tenperaturan eta tenperatura baxuetan) eta dispersioak edo disoluzioal beiratzea kriomikroskopia bidez analizatzeko.